

**Consulta de Documento**

<b>Archivo del documento</b>	<a href="#">paz y convivencia 29 julio biling.pdf</a>
<b>Descripción</b>	ACUERDO POR EL QUE SE TOMA CONOCIMIENTO DEL INFORME DE SEGUIMIENTO SOBRE LA GESTIÓN Y EJECUCIÓN DEL PLAN DE PAZ Y CONVIVENCIA, LLEVADO A CABO DURANTE EL PRIMER SEMESTRE DE 2014
<b>Creador</b>	Cortés Larramendi, Carmen
<b>Cargo firmante</b>	Erkoreka Gervasio, Josu Iñaki
<b>Fecha modificación</b>	30/07/2014
 <b>Firmado digitalmente por</b>	JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO

**JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO, CONSEJERO DE  
ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA Y SECRETARIO DEL GOBIERNO  
VASCO**

**CERTIFICO:**

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 29 de julio de 2014 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**ACUERDO POR EL QUE SE TOMA CONOCIMIENTO DEL INFORME DE SEGUIMIENTO SOBRE LA GESTIÓN Y EJECUCIÓN DEL PLAN DE PAZ Y CONVIVENCIA, LLEVADO A CABO DURANTE EL PRIMER SEMESTRE DE 2014. (EXP. 2014/00665) (A/20140190)**

El Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 26 de noviembre de 2013, aprobó el “Plan de Paz y Convivencia 2013-2016 - Un objetivo de encuentro social”.

El Acuerdo de aprobación establece que el seguimiento y evaluación del “Plan de Paz y Convivencia 2013-2016 – Un objetivo de Encuentro social” se llevarán a cabo de conformidad con lo establecido en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 11 de junio de 2013 y en el propio Plan, recogiendo las siguientes especificidades:

- El seguimiento continuo se realizará con carácter semestral, por la Comisión Interdepartamental creada en el propio Plan.
- La evaluación se realizará, con periodicidad bienal, por una auditoría externa, y sus resultados darán lugar a un documento de actualización del programa de trabajo del Plan.

Igualmente establece que la información relativa al seguimiento y evaluación del “Plan de Paz y Convivencia 2013-2016 - Un objetivo de encuentro social”, se remitirá, para su conocimiento, al Consejo de Gobierno y al Parlamento.

Una vez transcurrido el primer semestre de 2014, la Secretaría General para la Paz y la Convivencia ha elaborado el Informe de Seguimiento sobre la gestión y ejecución del Plan de Paz y Convivencia, llevado a cabo durante el primer semestre de 2014.

En virtud de lo anteriormente expuesto, a propuesta del Lehendakari, y previa la correspondiente deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

## ACUERDO

**“Primero.-** Tomar conocimiento del Informe de Seguimiento sobre la gestión y ejecución del Plan de Paz y Convivencia, correspondiente al primer semestre de 2014, que se aporta en el Anexo.

**Segundo.-** Remitir el presente Acuerdo al Parlamento, en cumplimiento de lo previsto en el apartado cuatro del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 26 de noviembre de 2013”.

## ANEXO AL ACUERDO:

### **Informe de Seguimiento sobre la gestión y ejecución del Plan de Paz y Convivencia, correspondiente al primer semestre de 2014.**

#### **Justificación y objeto del Informe**

El Acuerdo de Consejo de Gobierno de 26 de noviembre de 2013 por el que se aprobó el Plan de Paz y Convivencia reguló el sistema de seguimiento y evaluación a llevar a cabo durante su vigencia en los siguientes términos:

“Cuarto.- El seguimiento y la evaluación del “Plan de Paz y Convivencia 2013-2016 -Un objetivo de encuentro social” se llevarán a cabo de conformidad con lo establecido en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 11 de junio de 2013 y en el propio Plan, que recoge las siguientes especificidades:

-El seguimiento continuo se realizará, con carácter semestral, por la Comisión Interdepartamental creada en el propio Plan.”

De igual manera, el Plan en su Eje transversal recoge las Iniciativas relacionadas con su gestión y su sistema de seguimiento y evaluación. Entre otras cosas, atribuía a una Comisión Inter-Departamental (actualmente en fase de creación) el cometido de llevar a cabo semestralmente un seguimiento continuo del plan.

Como quiera que en el momento que se emite este informe la Iniciativa relativa a la constitución de la Comisión Interdepartamental todavía no se ha culminado corresponde la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos, como órgano al que se le reconocen en el Plan labores de coordinación y de asistencia a la propia Comisión, la elaboración de este informe de seguimiento en relación a la Iniciativas del plan y, en particular, a aquellas con un compromiso de ejecución referido especialmente para este semestre.

En consecuencia, este primer informe de seguimiento ofrece un balance de la gestión y ejecución del Plan de Paz y Convivencia durante el primer semestre de 2014. Recuerda el enunciado de cada una de sus 18 iniciativas, con la referencia de las acciones previstas para el periodo enero-junio y, junto a ello, el grado de cumplimiento de cada una de las previsiones. Finalmente, agrega un conjunto de conclusiones valorativas sobre la marcha de este primer periodo y de las perspectivas para el siguiente.

## II.- Seguimiento de la ejecución del Plan de Paz y Convivencia durante el primer semestre de 2014

### ·Iniciativas en relación con el pasado

Iniciativa	Acciones previstas	Seguimiento
· <b>Iniciativa 1.</b> Realización de informes sobre vulneraciones de derechos humanos y actuaciones derivadas	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Encargo, elaboración y entrega del informe al Parlamento Vasco.</li> <li>·Analizar y proyectar investigaciones y acciones derivadas del contenido y las recomendaciones del informe.</li> <li>·Elaboración del Programa-base de prioridades en materia de memoria histórica.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·14-VI-2013. El Informe está publicado y entregado al Parlamento Vasco.</li> <li>·Se ha encargado un informe sobre atentados no esclarecidos.</li> <li>·Este documento está en fase de elaboración.</li> </ul>
· <b>Iniciativa 2.</b> Instituto de Memoria y Convivencia	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Aprobación parlamentaria de la Propuesta de Instituto de Memoria y Convivencia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·La proposición de ley para la creación de este centro se está debatiendo actualmente en el Parlamento Vasco. Una vez sea aprobada, se iniciará el proceso para su puesta en marcha.</li> </ul>
· <b>Iniciativa 3.</b> Contribución al Memorial de Víctimas del Terrorismo		<ul style="list-style-type: none"> <li>·La dirección y dinamización de este proyecto corresponde al Gobierno español que por el momento no ha presentado su propuesta de trabajo.</li> </ul>

<p><b>Iniciativa 4.</b> Apoyo, reconocimiento y reparación a las víctimas del terrorismo</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Línea de acción asistencial. Mantenimiento del Servicio de Asistencia a Víctimas, del programa de subvenciones a fondo perdido y del convenio con el CGPJ para la Oficina de apoyo a las víctimas en la Audiencia Nacional.</li> <li>·Línea de colaboración con entidades sociales. Mantenimiento de la convocatoria de subvenciones a asociaciones de ayuda a víctimas, así como de los convenios con la Fundación de Víctimas del Terrorismo y la Fundación Fernando Buesa. Todo ello junto al desarrollo de seminarios y encuentros con asociaciones y víctimas.</li> <li>·Líneas de fomento de investigaciones y estudios. Mantenimiento del convenio con la UPV (IVAC) para el desarrollo de investigaciones anuales así como de estudios de posgrado.</li> <li>·Línea de fomento de la participación. Promover la coordinación y el trabajo conjunto con el Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo. Impulsar una conmemoración consensuada del Día de la Memoria. Promover el desarrollo consensuado del Mapa de la Memoria.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Se ha dado continuidad a todas las líneas de acción previstas en el ámbito asistencial.</li> <li>·30-V-2014. Adicionalmente, se ha puesto en marcha el Programa Gertu y se están dando los primeros pasos en iniciativas experimentales de diálogo entre víctimas.</li> <li>·Se ha dado continuidad a todas las líneas de acción previstas en el ámbito de colaboración con entidades sociales.</li> <li>·Se ha presentado un estudio cualitativo realizado con el IVAC sobre necesidades y preocupaciones de las víctimas.</li> <li>·Durante el primer semestre se ha celebrado una nueva reunión del Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo.</li> <li>·30-VI-2014. Se ha dado un nuevo impulso al Mapa de la Memoria con un documento que ha sido remitido a todos los ayuntamientos.</li> </ul>
--	--	---

<p><b>Iniciativa 5.</b> Apoyo, reconocimiento y reparación a las víctimas sin amparo en la actual legislación</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Gestionar el proceso derivado del primer decreto.</li>   <li>·Preparar el segundo decreto de modo que puedan completarse los procesos de reconocimiento y reparación a todas las víctimas.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Se ha gestionado el Decreto 107/2012 de reconocimiento y reparación a víctimas no reconocidas de violaciones de derechos humanos producidas entre 1960 y 1978. El Gobierno español ha recurrido una modificación de este decreto y los servicios jurídicos del gobierno han presentado las alegaciones pertinentes. Se han mantenido reuniones con las víctimas afectadas.</li>   <li>·Esta Secretaría trabaja en la preparación de un segundo decreto para los procesos de reconocimiento y reparación a las víctimas desde 1978 hasta nuestros días.</li> </ul>
<p><b>Iniciativa 6.</b> Investigación y acción sobre la tortura</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Elaborar el estudio.</li>   <li>·Establecer las conclusiones sobre los protocolos que han de establecerse para el estudio de casos de tortura.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·26-VI-2014. Se ha presentado el Proyecto de investigación sobre torturas entre 1960 y 2010. El proyecto ha sido encargado al Instituto Vasco de Criminología y será dirigido por el forense Francisco Etxeberria. Se ha informado al Comité de Prevención de la Tortura del Consejo de Europa.</li>   <li>·Se ha recibido un informe-experto sobre los protocolos que han de establecerse para el estudio de casos de tortura en el marco del Decreto 107/2012.</li> </ul>

**·Iniciativas en relación con el presente**

<p><b>·Iniciativa 7.</b> Colaboración y trabajo conjunto con el Parlamento Vasco</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Colaborar activamente con Parlamento en todos los proyectos de Gobierno que resulten estratégicos para la convivencia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·La Secretaría General para la Paz y Convivencia mantiene abiertas todas las líneas de comunicación y colaboración posible con el Parlamento vasco y con todos sus grupos parlamentarios.</li> </ul>
<p><b>·Iniciativa 8.</b> Desarrollo del Programa Hitzeman en política penitenciaria</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Diálogo y búsqueda de acuerdos con el Gobierno español.</li> <li>·Preparación del Programa Hitzeman.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·El Gobierno Vasco y esta Secretaría mantienen contactos con el Gobierno español que por el momento resultan infructuosos para la búsqueda de acuerdos.</li> <li>·Cumpliendo con las previsiones del Plan de Paz y Convivencia, el Programa Hitzeman en el primer semestre de 2014 está en fase de elaboración.</li> </ul>
<p><b>·Iniciativa 9.</b> Impulso de Líneas de colaboración con la Unión Europea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Articulación de espacios de colaboración.</li> <li>·Desarrollo de los programas de actuación definidos.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Se han mantenido contactos en el ámbito europeo para establecer líneas de colaboración con las instituciones europeas que deberán producir resultado a lo largo del segundo semestre.</li> </ul>

<p><b>Iniciativa 10.</b> Cooperación con la Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos</p>	<p>·Firma del Memorando 2014 y recepción del informe de valoración 2013.</p>	<p>·Se han desarrollado las gestiones necesarias para que la firma del Memorándum 2014 se pueda producir durante los próximos meses.</p>
<p><b>Iniciativa 11.</b> Contribución compartida de las universidades vascas</p>	<p>·Realización del trabajo.</p>	<p>·8-I-2014. Se ha firmado el convenio con las tres universidades vascas y el trabajo previsto para 2014 se está desarrollando conforme a lo previsto.</p>
<p><b>Iniciativa 12.</b> Continuidad del Compromiso Social de la ERTZAINZA por la Convivencia y los Derechos Humanos</p>	<p>·Actualización y desarrollo del Programa Formativo sobre derechos humanos y bases éticas de una policía para la convivencia democrática.</p> <p>·Puesta en marcha del Programa Participativo para la elaboración de los objetivos y las iniciativas de continuidad del Compromiso Social de la ERTZAINZA por la Convivencia y los Derechos Humanos.</p>	<p>·Se están desarrollando conforme a lo previsto las iniciativas concertadas con el Departamento de Seguridad en materia de formación y participación de la ERTZAINZA en el ámbito de la convivencia y los derechos humanos:</p> <p>-1-III-2014. Curso de AI sobre derechos humanos</p> <p>-2-IV-2014. Creación de grupo de trabajo específico.</p>

**·Iniciativas en relación con el futuro**

<p><b>·Iniciativa 13.</b> Colaboración público-social con la red asociativa vasca</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Preparación y firma del acuerdo con la red asociativa vasca en torno al Acuerdo Gizalegez.</li> <li>·Preparación y firma de convenios y acuerdos de colaboración con otras instituciones para promover el Programa de Bonos Elkarrekin.</li> <li>·Puesta en marcha del Programa de Bonos Elkarrekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·17-VI-2014. Se ha puesto en marcha el Programa de Bonos Elkarrekin que promueve espacios de colaboración entre diferentes instituciones y entidades de la red asociativa en tres ámbitos: educación, participación ciudadana y convivencia local.</li> </ul>
<p><b>·Iniciativa 14.</b> Promoción de la participación ciudadana</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Presentación del documento marco sobre participación ciudadana.</li> <li>·Puesta en marcha de las iniciativas de participación ciudadana.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·La elaboración de un documento marco sobre participación ciudadana está en fase de borrador y su presentación y desarrollo se prevé para el segundo semestre.</li> </ul>
<p><b>·Iniciativa 15.</b> Concertación por la convivencia con las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Definición del acuerdo con cada Diputación Foral, EUDEL y los Ayuntamientos.</li> <li>·Puesta en marcha de los acuerdos interinstitucionales.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Se han mantenido varias rondas de conversaciones con las tres Diputaciones para su participación en el Programa Elkarrekin. En este momento se está a la espera de respuesta por su parte.</li> </ul>

<p><b>Iniciativa 16.</b> Impulso de líneas de actuación adicional en el ámbito de la educación formal</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Aprobar e impulsar el programa de continuidad de las experiencias educadoras mediante testimonios de víctimas.</li>   <li>·Presentar el documento de actualización y desarrollo de las anteriores líneas de actuación.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Se continúa conforme a lo previsto con la gestión de los cuatro proyectos del Plan de Paz y Convivencia en el ámbito educativo: el Acuerdo Gizalegez, el Programa Elkarrekin, el Módulo Educativo Adi-Adian y Eskola Bakegune.</li>   <li>·La presentación del documento de actualización y desarrollo de las líneas de actuación se pospone a final de 2014.</li> </ul>
<p><b>Iniciativa 17.</b> Promoción de líneas de actuación específicas en el ámbito de la juventud, la cultura y la educación no formal</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Preparar y suscribir el acuerdo con el Consejo de la Juventud.</li>   <li>·Puesta en marcha de la primera fase de las cuatro líneas de actuación:           <ul style="list-style-type: none"> <li>-programa de formación.</li> <li>-espacio de intercambio.</li> <li>-encuentro de jóvenes y asociaciones.</li> <li>-fondo de referencias.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·6-VI-2014. Se ha suscrito el Convenio de colaboración con el Consejo de la juventud de Euskadi.</li>   <li>·Actualmente se está preparando la puesta en marcha de sus cuatro grandes líneas de actuación</li> </ul>
<p><b>Iniciativa 18.</b> Sensibilización social y compromiso de los medios de comunicación públicos</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Diseño de los programas de sensibilización para 2014. Definición del marco de colaboración con EiTB para el periodo 2014-16.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·El convenio está tramitándose. Su contenido define el marco de colaboración del periodo 2014-16.</li> </ul>

**·Iniciativas relacionadas con la gestión del plan**

<p><b>Ficha I.</b> Impulso, gestión y coordinación del Plan de Paz y Convivencia</p>	<ul style="list-style-type: none"><li>·Convocatoria de la Comisión interdepartamental y presentación de su programa de trabajo.</li><li>·Presentación de la propuesta de funcionamiento y trabajo de la Comisión de Coordinación.</li><li>·Aprobación del decreto de creación del Consejo Consultivo del Plan de Paz y Convivencia.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>·La creación de la Comisión interdepartamental está en fase de tramitación interna.</li><li>·La Creación de la Comisión de Coordinación está en fase de consulta con los grupos parlamentarios.</li><li>·El decreto de creación del Consejo Consultivo del Plan de Paz y Convivencia está en fase de tramitación interna</li></ul>
--	---	--



### III.- Conclusiones

1. El Plan de Paz y Convivencia fue aprobado por Acuerdo de Consejo de Gobierno el 26 de noviembre de 2013. Desde entonces y a lo largo del primer semestre de 2014, el esfuerzo principal en su impulso y gestión se ha centrado en la puesta en marcha de las distintas iniciativas previstas en función del calendario de trabajo establecido en el propio plan.
2. En este sentido, cabe destacar que en este momento 17 de sus 18 iniciativas programáticas, están ya activadas en distintos grados de ejecución. La iniciativa no puesta en marcha es la relativa al Centro Memorial de Víctimas del Terrorismo cuya responsabilidad de iniciativa y puesta en marcha corresponde el Gobierno español.
3. El contenido del Plan de Paz y Convivencia está estructurado en tres ámbitos conceptuales y de gestión: el pasado, el presente y el futuro. Cada uno de estos tiempos contiene una reflexión teórica y seis iniciativas concretas de actuación. Dentro de este primera etapa las actuaciones más destacables siguiendo esta clasificación han sido los siguientes:
  - En cuanto a las actuaciones relativas al pasado, dos ejes han ocupado el esfuerzo principal. En primer lugar, el impulso de iniciativas de clarificación como el encargo del informe sobre atentados no esclarecidos, o la investigación sobre la tortura; y en segundo lugar, la incorporación de nuevas iniciativas en las políticas públicas de reconocimiento y reparación a las víctimas como las que representa el Programa Gertu o el impulso del Mapa de la Memoria.
  - En relación con las iniciativas vinculadas a la gestión del presente, cabe destacar, por un lado, el convenio establecido con las universidades vascas de cara a establecer un marco de contribución académica para la consolidación de la paz y la convivencia, y la activación de los compromisos previstos en el ámbito de la Ertzaintza. Por otra parte, este primer semestre ha servido para preparar espacios de colaboración tanto en el ámbito europeo como con el Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos.
  - Con respecto al futuro, también destacan dos ámbitos de actuación preferente. De una parte, la puesta en marcha de una iniciativa innovadora como la que representa el Programa Elkarrekin para desarrollar una experiencia de colaboración público social en pos de una nueva cultura de convivencia; y de otra parte, la activación del 100% de las previsiones establecidas en el ámbito de la educación, con el Programa Adi-adian como ejemplo. A ello debe añadirse el convenio suscrito con el Consejo de la Juventud.
4. Cabe subrayar, en definitiva que el Plan de Paz y Convivencia ha cumplido con una valoración muy positiva sus previsiones de ejecución a lo largo del primer semestre de 2014, tanto desde una perspectiva global como específica en cada una de sus actuaciones previstas.
5. Con vistas al segundo semestre de 2014, el programa de actuación está definido con precisión en los calendarios que cada una de las iniciativas compromete para las distintas acciones. En este marco general, los que se mencionan a continuación, son algunos de los hitos prioritarios en los que la Secretaría General para la Paz y la Convivencia centrará su gestión:

- Preparación del proyecto de Instituto de la Memoria y la Convivencia, tras su aprobación parlamentaria.
- Continuidad y renovación de las políticas públicas en materia de reconocimiento y reparación a las víctimas.
- Preparación de las bases de consenso para desarrollar el Programa Hitzeman.
- Definición de proyectos de colaboración en el ámbito internacional y específicamente en el marco europeo.
- Aprobación del Decreto de creación del Consejo Consultivo del Plan de Paz y Convivencia y constitución del mismo.

6. La perspectiva de seis meses es todavía corta para ofrecer una cuantificación precisa del grado de ejecución del plan que no pecase de prematura. La elaboración del siguiente informe semestral ofrecerá la perspectiva de más de un año de gestión del Plan de Paz y Convivencia. Ese informe constituirá la ocasión de profundizar con una mayor amplitud en aspectos como los siguientes: una valoración proporcional de los indicadores de resultado, el balance culminado, adelantado o retrasado de sus actuaciones, o la incorporación de ajustes, replanteamientos o nuevas actuaciones que se considere adecuado incorporar desde una perspectiva dinámica de la ejecución del Plan de Paz y Convivencia.

10 de julio de 2014

Secretaría General para la Paz y la Convivencia"

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2014.



## **JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO JAUNAK, EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURUAK**

### **EGIAZTATZEN DUT:**

Eusko Jaurlaritzak, 2014ko uztailaren 29an egindako bilkuran erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

#### **ERABAKIA, BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANAK 2014KO LEHEN SEIHILEKOAN IZANDAKO KUDEAKETARI ETA GAUZATZEARI BURUZKO JARRAIPEN-TXOSTENA EZAGUTUTZAT EMATEN DUENA. (EXP. 2014/00665) (A/20140190)**

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2013ko azaroaren 26an egindako bilkuran, "2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Plana - Gizartea Elkartzea helburu" plana onartu zuen. Plana onartzeko erabakian ezartzen denez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko ekainaren 11n hartutako Erabakian eta Planean bertan ezarritakoaren arabera egingo da "2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Plana - Gizartea Elkartzea helburu" planaren jarraipena eta ebaluazioa. Halaber, zehaztapen hauek jasotzen dira:

- Etengabeko jarraipena Planean bertan sortutako Sailarteko Batzordeak egingo du, sei hilean behin.
- Ebaluazioa kanpo ikuskaritza batek egingo du, bi urtean behin. Planaren emaitzetan oinarrituta, Planaren lan-programa eguneratzeko dokumentu bat egingo da.

Horretaz gainera, "2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Plana - Gizartea Elkartzea helburu" planaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko informazioa Jaurlaritzaren Kontseilura eta Legebiltzarrera bidaliko da, horren berri izan dezaten.

2014ko lehen seihilekoa igarota, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Bake eta Bizikidetza Planaren kudeaketari eta gauzatzeari buruzko jarraipen-txostena egin du, 2014ko lehen seihilekoari dagokiona.

Horren guztiaren ondorioz, Lehendakariak proposatuta, gaia eztabaidatu ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak hau erabaki du:



## ERABAKIA

"Lehenengoa.- Bake eta Bizikidetza Planaren kudeaketari eta gauzatzeari buruzko jarraipen-txostena, 2014ko lehen seihilekoari dagokiona, ezagututzat ematea. Eranskinean dago txostena.

Bigarrena.- Erabaki hau Legebiltzarrera bidaltzea, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko azaroaren 26an hartuko Erabakiaren laugarren idatz-zatian ezarritakoa betez.

## ERABAKIAREN ERANSKINA:

### BAKE ETA BIZIKIDETZA PLANAK 2014KO LEHEN SEIHILEKOAN IZANDAKO KUDEAKETARI ETA GAUZATZEARI BURUZKO JARRAIPEN-TXOSTENA.

#### I.- Txostenaren justifikazioa eta xedea

Gobernu Kontseiluaren 2013ko azaroaren 26ko Akordioak, Bake eta Bizikidetza Plana onartu zuenak, azken horren indarraldian egin beharreko jarraipen- eta ebaluazio-sistema arautu zuen; zehazki:

"Laugarrena.- "Bake eta Bizikidetza Plana 2013-2016 – Gizarte-topaketa helburu" izeneko planaren jarraipena eta ebaluazioa Gobernu Kontseiluaren 2013ko ekainaren 11ko Akordioan eta Planean bertan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira. Azken horrek berezitasun hauek jasotzen ditu:

-Planean bertan sortutako Sail-arteko Batzordeak egingo du etengabeko jarraipena, sei hilabetean behin."

Era berean, Planak bere Zeharkako Ardatzean aipatzen ditu horren kudeaketarekin zein jarraipen- eta ebaluazio-sistemarekin lotutako ekimenak. Besteak beste, Sail-arteko Batzorde bati (une honetan sortze-fasean dagoena) esleitzen dio seihilekoz seihileko Planaren etengabeko jarraipena egiteko ardura.

Txosten hau egiteko unean Sail-arteko Batzordea eratzeari buruzko ekimena oraindik ere burutu ez denez, Bikitmen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari dagokio Planeko ekimenei buruzko jarraipen txosten hau egitea, Planean bertan Batzordea koordinatzeko eta horri laguntzeko lana esleitzen baitzaio, eta, zehazki, bereziki seihileko honetarako gauzatze-konpromisoa duten ekimenei buruzkoa.

Horren ondorioz, lehen jarraipen-txosten honek egiten du 2014ko lehen seihilekoan Bake eta Bizikidetza Planak izandako kudeaketari eta gauzatzeari buruzko balantzea. Planaren 18 ekimenak hitzez hitz gogoratzen ditu, urtarrila eta ekaina bitarterako aurreikusitako ekintzak aipatuz eta, horrekin batera, aurreikuspeneak zer mailatan bete diren adierazten du. Azkenik, lehen aldi honen martxari buruzko ondorioak eta balioespenak eransten ditu, baita hurrengo aldirako aurreikuspenei buruzkoak ere.

**II.- 2014ko lehen seihilekoan Bake eta Bizikidetza Planak izan duen gauzatze-mailaren jarraipena**

**·Iraganarekin lotutako ekimenak**

<b>Ekimena</b>	<b>Aurreikusitako ekintzak</b>	<b>Jarraipena</b>
<p><b>·1. ekimena.</b> Giza eskubideen urraketei eta eratorritako ekintzei buruzko txostenak egitea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Txostenetako agindua, egin eta Eusko Legebiltzarrari ematea.</li> <li>·Txostenaren edukitik eta gomendioetatik eratorritako ikerketak eta ekintzak aztertu eta horien plangintza egitea.</li> <li>·Memoria historikoaren arloan, lehentasunen oinarri-programa prestatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·2013-VI-14 Txostenetako argitaratuta dago eta Eusko legebiltzarrari eman zaio.</li> <li>·Argitu gabeko atentatuei buruzko txosten bat egiteko agindua eman da.</li> <li>·Agiri hori egiten ari dira.</li> </ul>
<p><b>·2. ekimena.</b> Memoriari eta Bizikidetzari buruzko Institutua</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Legebiltzarrean Memoria eta Bizikidetzari buruzko Institutuaren proposamena onartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Zentro hori sortzeko lege-proposamena eztabaidatzen ari dira une honetan Eusko Legebiltzarrean. Onartu ondoren hasiko da zentroa abian jartzeko prozesua.</li> </ul>
<p><b>·3. ekimena.</b> Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroari ekarpena egitea</p>		<ul style="list-style-type: none"> <li>·Espainiako gobernuari dagokio proiektu hori zuzendu eta dinamizatzea; gaur arte, ordea, ez du bere lan-proposamena aurkeztu.</li> </ul>

<p><b>.4. ekimena.</b> Terrorismoaren biktamei laguntza, eta aitorpena eta ordainak ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Laguntzarako ekintza-ildoa. Biktamei Laguntzeko Zerbitzuari, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen programari eta Auzitegi Nazionalean biktamei laguntzeko Bulegorako Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrarekin egindako hitzarmenari eustea.</li> <li>·Gizarte-erakundeekiko lankidetza-ildoa. Biktamei laguntzeko elkarteei zuzendutako diru-laguntzen deialdiari eustea, bai eta Víctimas del Terrorismo Fundazioarekin eta Fernando Buesa Fundazioarekin egindako hitzarmenei ere. Hori guzia elkarteekin eta biktamekin mintegiak eta topaketak antolatzearkin batera.</li> <li>·Ikerketak eta ikasketak sustatzeko ildoak. Urteko ikerketak eta gradu-ondoko ikasketak egiteko EHUREkin (KREI) sinatutako hitzarmenari eustea.</li> <li>·Parte-hartzea sustatzeko ildoa. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarekin koordinatuta eta lankidetzan aritza sustatzea. Oroimenaren Egunerako oroitzia adostua bultzatzea. Oroimenaren Mapa adostasunez gara dadin sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Laguntzaren arloan aurreikusitako ekintza-ildo guztiei eman zaie jarraitasuna.</li> <li>·2014-V-30. Horrez gainera, Gertu Programa abian jarri da eta lehen urratsak ematen ari dira biktimen arteko elkarritzetarako ekimen esperimentalei dagokienez.</li> <li>·Jarraitasuna eman zaie gizarte-erakundeekiko lankidetzaren arloan aurreikusitako ekintza-ildo guztiei.</li> <li>·KREIrekin batera biktimen beharrizanei eta ardurei buruz egindako ikerketa kualitatibo bat aurkeztu da.</li> <li>·Lehen seihibekoan beste batzar bat egin du Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak.</li> <li>·2014-VI-30. Beste bultzada bat eman zaio Oroimenaren Mapari, udal guztieta bidali duten agiri bat prestatu baita.</li> </ul>
---	---	--

<p><b>.5. ekimena.</b> Egungo legedian babesik ez duten biktamei laguntzea eta aitorpena eta ordainak ematea.</p>	<p>·Lehen dekretutik eratorritako prozesua kudeatzea.</p> <p>·Bigarren dekretua prestatzea, biktima guztiak aitortzeko eta horiei ordainak emateko prozesuak amaitu ahal izateko.</p>	<p>·107/2012 Dekretua, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabek jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa, kudeatu da. Espaniako gobernuak dekretu horren aldaketa bat errekurritu du eta Jaurlaritzako zerbitzu juridikoek dagozkion alegazioak aurkeztu dituzte. Bilerak antolatu dira eragindako biktimekin.</p> <p>·Idazkaritza hau prestatzen ari da, dagoeneko, 1978tik gaur arteko biktimak aitortu eta horiei ordainak emateko prozesuetarako beste dekretu bat.</p>
<p><b>.6. ekimena.</b> Torturari buruzko ikerketa eta ekintza</p>	<p>·Ikerlana egitea.</p> <p>·Tortura kasuak ikertzeko ezarri behar diren protokoloei buruzko ondorioak ateratzea.</p>	<p>·2014-VI-26. 1960tik 2012era egindako torturei buruzko ikerketa-proiektua aurkeztu da. Euskadiko Kriminologia Institutuari agindu zaio proiektua, eta Francisco Etxebarria auzitegiko medikuak zuzenduko du. Horren berri eman zaio Europako Kontseiluaren Torturari Aurre Hartzeko Batzordeari.</p> <p>·107/2012 Dekretuaren esparruko torturakasuak ikertzeko ezarri behar diren protokoloei buruzko adituen txosten bat jaso da.</p>

## Orainarekin lotutako ekimenak

<p><b>7. ekimena.</b> Eusko Legebiltzarrarekin lankidetza eta batera lan egitea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Lankidetza aktiboan jardutea Legebiltzarrarekin bizikidetzarako estrategikoak diren Jaurlaritzaren proiektu guztietai.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak irekita ditu Eusko Legebiltzarrarekiko komunikazio- eta lankidetza-ildo guztiak, baita legebiltzar-talde guziekikoak ere.</li> </ul>
<p><b>8. ekimena.</b> Espetxe-politikan Hitzeman Programa garatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Spainiako gobernuarekin elkarriketatzea eta akordioak bilatzea.</li> <li>· Hitzeman Programa prestatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Eusko Jaurlaritza eta Idazkaritza hau harremanetan daude Spainiako gobernuarekin, baina oraindik ez dute akordiorik erdietsi.</li> <li>· Bake eta Bizikidetza Planaren aurreikuspenak betez, Hitzen Programa prestakuntza-fasean dago 2014ko lehen seihiokoan.</li> </ul>
<p><b>9. ekimena.</b> Europar Batasunarekiko lankidetza-ildoak bultzatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Lankidetza-espazioak egituratzea.</li> <li>Ekintza-programa zehatzak garatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Europako esparruarekin harremanetan jarri gara Europako erakundeekin lankidetza-ildoak ezartzeko; harreman horien emaitzak bigarren seihiokoan gertatu beharko dira.</li> </ul>

<p><b>·10. ekimena.</b> Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin lankidetzan aritzea.</p>	<p>·2014 Memoranduma sinatzea eta 2013ko balioespen-txostena jasotzea.</p>	<p>·2014 Memoranduma datozen hilabeteetan sinatu ahal izateko beharrezko kudeaketak gauzatu dira.</p>
<p><b>·11. ekimena.</b> Euskal unibertsitateen ekarpen partekatua</p>	<p>·Lana egitea.</p>	<p>·2014-I-8. Hitzarmena sinatu da hiru euskal unibertsitateekin, eta 2014rako aurreikusitako lana aurreikusi bezala ari da gauzatzen.</p>
<p><b>·12. ekimena.</b> ERTZAINZAK Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde hartutako Gizarte Konpromisoari jarraitasuna ematea.</p>	<p>·Giza eskubideei eta bizikidetza demokratikorako polizia baten oinarri etikoei buruzko prestakuntza-programa eguneratu eta garatzea.  ·ERTZAINZAK Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen alde hartutako Gizarte Konpromisoaren xedeak eta horri jarraitasuna emateko ekimenak prestatzeko Partaidetza Programa abiaraztea.</p>	<p>·Aurreikusitakoaren arabera gauzatzen ari dira Herrizaingo Sailarekin hitzartutako ekimenak ERTZAINZAK bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean prestakuntza jasotzeko eta haren parte-hartza bultzatzeko.  -2014-III-1. Amnesty Internationalen giza eskubideei buruzko ikastaroa  -2014-IV-2 Lantalde berezi bat sortzea.</p>

**·Etorkizunarekin lotutako ekimenak**

<p><b>·13. ekimena.</b> Lankidetza publiko-soziala euskal elkarteen sarearekin</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Akordioa prestatu eta sinatzea euskal elkarteen sarearekin Gizalegez Akordioaren inguruan.</li> <li>Lankidetza-hitzarmen eta -akordioak prestatu eta sinatzea beste erakunde batzuekin Elkarrekin Bonuen Programa sustatzeko.</li> <li>·Elkarrekin Bonuen Programa martxan jartzea.</li> </ul>	<p>·2014-VI-17. Abiarazi da Elkarrekin Bonuen Programa, hiru alor hauetan euskal elkarteen sareko hainbat erakunderen arteko lankidetza-espazioak sustatzen dituena: hezkuntza, herritarren parte-hartzea eta tokiko bizikidetza.</p>
<p><b>·14. ekimena.</b> Herriaren parte-hartzea sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Herriaren parte-hartzeari buruzko esparru-agiria aurkeztea.</li> <li>·Herriaren parte-hartza bultzatzeko ekimenak abian jartzea.</li> </ul>	<p>·Herriaren parte-hartzeari buruzko esparru-agiria zirriborro-fasean dago, eta bigarren seihibekoan aurkeztu eta garatzea aurreikusten da.</p>
<p><b>·15. ekimena.</b> Adostasuna bizikidetzaren alde foru-aldundiekin eta udalekin</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Foru-aldundi bakoitzarekin, EUDELekin eta udalekin egin beharreko akordioak zehaztea.</li> <li>·Erakunde-arteko akordioak abian jartzea.</li> </ul>	<p>·Hainbat elkarrizketa-saio egin dira hiru foru-aldundiekin Elkarrekin Programan parte hartzen. Une honetan haien erantzunaren zain gaude.</p>

<p><b>·16. ekimena.</b> Ekintza-ildo osagarriak bultzatzea hezkuntza formalaren arloan</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Esperimentzia hezitzaileen jarraitasun-programa onartu eta bultzatzea biktimen lekukotasunen bidez.</li>   <li>·Aurreko ekintza-ildoak eguneratzeko eta garatzeko agiria aurkeztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Aurreikusitakoaren arabera egin da aurrera Bake eta Bizikidetza Planak hezkuntzaren arloan jasotzen dituen lau proiektuen kudeaketari dagokionez: Gizalegez Akordioa, Elkarrekin Programa, Adi-adian Hezkuntza Modulua eta Bakegune Eskola.</li>   <li>·2014. urteko bukaera aldera atzeratu da ekintza-ildoak eguneratu eta garatzeko agiriaren aurkezpena.</li> </ul>
<p><b>·17. ekimena.</b> Ekintza-ildo bereziak sustatzea gazteriaren, kulturaren eta hezkuntza ez formalaren arloetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Akordioa prestatu eta sinatzea Gazteriaren Kontseiluarekin.</li>   <li>·Lau ekintza-ildoaren lehen fasea abian jartzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>-prestakuntza-programa.</li> <li>-elkar-trukerako espazioa.</li> <li>-gazteen eta elkarteen arteko topaketa.</li> <li>-erreferentzien funtsa.</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·2014-VI-6. Sinatu da lankidetza-hitzarmena Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin.</li>   <li>·Gaur egun lau ekintza-ildo handiak abian jartzeko lanak prestatzen ari dira.</li> </ul>
<p><b>·18. ekimena.</b> Gizarte sentiberatzea eta komunikabide publikoen konpromisoa lortzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·2014rako sentiberatze-programak diseinatzea. Lankidetza-esparrua zehaztea EiTBrekin 2013-2016 aldirako.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>·Hitzarmena izapidetze-fasean dago. Horren edukiak zehazten du 2014-2016 aldirako lankidetza-esparrua.</li> </ul>

**· Planaren kudeaketarekin lotutako ekimenak**

<p><b>I. fitxa.</b> Bake eta Bizikidetza Plana bultzatu, kudeatu eta koordinatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"><li>· Sail-arteko Batzordea deitu eta horren lan-programa aurkeztea.</li><li>· Koordinazio Batzordearen funtzionamendu-eta lan-proposamena aurkeztea.</li><li>· Bake eta Bizikidetza Planaren Aholkularitza Batzordea sortzeko dekretua onartzea.</li></ul>	<p>Sail-arteko Batzordearen sorrera barne-izapideen fasean dago.</p> <p>· Koordinazio Batzordearen sorrera legebiltzar-taldeekin konsultatzeko fasean dago.</p> <p>· Bake eta Bizikidetza Planaren Aholkularitza Batzordea sortzeko dekretua barne-izapideen fasean dago.</p>
---	---	---

### III.- ONDORIOAK

1. Bake eta Bizikidetza Plana Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez onartu zen, 2013ko azaroaren 26an. Ordutik aurrera eta 2014ko lehen seihilekoan, Plana bultzatu eta kudeatzeko ahalegin nagusia aurreikusitako ekimenak abiaraztean oinarritu da, Planak berak ezarritako lan-egutegiaren arabera.
2. Hala, bada, nabarmenzekoa da une honetan planean jasotako 18 ekimenetatik 17 aktibatuta daudela dagoeneko, gauzapen-maila ezberdinetan. Oraindik ere abiarazi ez den ekimena Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroa da; izan ere, Spainiako gobernuarena da ekimenaren erantzukizuna eta hori abian jartzearena.
3. Bake eta Bizikidetza Planaren egitura kontzeptuzko eta kudeaketarako hiru alorretan egituratuta dago: iragana, oraina eta etorkizuna. Garai horietako bakoitzak bere gogoeta teorikoa du, eta seina ekimen zehatz. Lehen aldi honen barruan, ekintzarik nabarmenenak hauek izan dira, sailkapen horri men eginez:
  - Iraganarekin lotutako ekintzei dagokienez, bi ardatzek bildu dituzte ahalegin nagusiak. Batetik, auziak argitzeko ekimenei emandako bultzada, hala nola, argitu gabeko atentatuei buruzko txostena agintzea edo torturari buruzko ikerketa; bestetik, biktima aitortzeko eta horiei ordainak emateko politika publikoetan ekimen berriak sartzea, adibidez, Gertu Programa edo Oroimenaren Mapa bultzatzea.
  - Oraina kudeatzearekin lotutako ekimenei dagokienez, nabarmenzekoak dira, lehenik, bakea eta bizikidetza egonkortze aldera ekarpen akademikoko esparru bat ezartzeko euskal unibertsitateekin sinatutako hitzarmena; eta, bigarrenik, Ertzaintzaren alorrean aurreikusitako konpromisoak aktibatzea. Horrez gainera, lehen seihileko honetan lankidetza-espazioak prestatu ahal izan dira bai Europan eta bai Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoarekin.
  - Etorkizuna aintzat hartuz gero, beste bi ekintza-arlo hauek dira aipagarrienak. Alde batetik, Elkarrekin Programa berritzaila abiaraztea, bizikidetzaren kultura berri baten alde lankidetza publiko-sozialaren esperientzia garatzeko; eta, bestetik, hezkuntzaren arloan ezarritako aurreikuspenen %100 aktibatu izana, Adi-adian Programa eredu gisara hartuta. Horri guztiari, Gazteriaren Kontseiluarekin sinatutako hitzarmena erantsi behar zaio.
4. Nabarmenzekoa da, azken buruan, Bake eta Bizikidetza Planak oso emaitza onekin bete duela 2014ko lehen seihilekorako egindako gauzatze-aurreikuspena, bai ikuspuntu orokor batetik eta bai arlo zehatzetan ere, aurreikusitako ekimen guztietan.
5. 2014ko bigarren seihilekora begira, ekintza-programa zehatz-mehatz definituta dago ekimen bakoitzak horiek barruko ekintzetarako ezarritako egutegietan. Horien artean, jarraian aipatuko ditugunak lehentasunezko mugarriak dira eta, horregatik, Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lehentasuna emango die horien kudeaketari:
  - Memoria eta Bizikidetzaren Institutuaren proiektua prestatzea, Legebiltzarrak onartu ondoren.
  - Biktima aitortzearen eta horiei ordainak ematearen arloko politika publikoei eustea eta horiek berritzea.
  - Hitzeman Programa garatzeko adostasunaren oinarriak prestatzea.

- Lankidetza-proiektuak zehaztea nazioarteko esparruan eta, bereziki, Europan.
- Bake eta Bizikidetza Planaren Aholkularitza Batzordea sortzeko dekretua onartzea eta Kontseilua eratzea.

6. Sei hileko ikuspegia laburregia da oraindik planaren gauzatze-maila zehatza emateko, balioespen goiztiarregia litzateke. Hurrengo seihileko txostenak Bake eta Bizikidetza Planaren urtebete baino gehiagoko kudeaketaren ikuspegia emango du. Txosten horrek gehiago sakonduko arlo hauei buruz, besteak beste: emaitza-adierazleen analisi proportzionala, ekintzen balantze bukatua, aurreratua edo atzeratua, edota, Bake eta Bizikidetza Plana gauzatzeko ikuspuntu dinamiko batetik, Planean txerta daitezkeen doikuntzak, birplanteamenduak edo ekintza berriak, egokitzat jotzen badira.

2014ko uztailaren 10a.

Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia”

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2014ko uztailaren 29an.